


[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
561. zkia.
XIII. urtea
2006ko otsailaren 24a


## Pello Plaza, wingtsun irakaslea

# «Pertsona hobea eta umilagoa izaten laguntzen du wingtsunak»


[ KILIBARREN ] JAVIER GALLEGO • [ GAZTAROA ] SINUOSEK 10 URTE

# ZEZEN-131DE

hixeralo B agiri felikoo 18 urte beie lehen lbra dezakeu!

0:(1, 'ideZ teoria ikasteko yela berri a





ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 beheali**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# ZOZOAK BELEARI...



MAIN

tUA z V Esi

Barnerakoi nago Alaitz, trikua moduan bilduta.

Hemen idazten hasi naizenetik kritika batzuk (positiboak?) jaso ditut. Adibidez, "ebwat pitoik entenditzen, idatzik zeoze natuala" esan zidan anaiak lehengo batean. Herri hizkeratik urrun al nabil? Ez ote naiz herriarekin behar beste egoten?

Egañak abstrakziotik konkreziorako apustua egin duela dio azkenaldiko bere bertsokeran. Neuk ere lainoetako kontuak laga, eta lurrean jarriko ditut oinak Hauxe gaur neure erabakia. Eta lurtarra eta praktikoa izatekotan, eta kontuan izanik laster petrolio gabe egarri geratuko direla gure automobil maiteak, ortuan aritzeko gida praktiko bat dakarkizut motzean. Gogoan hartu aholkuok Alaitz, badabilen lagun batek okasiorako eman dizkidanak:

"Lurra ganorazkua izan bida, sakona, koska onekua, fina bada segituan lehortzen da ta sikutietan. Eguteran eon bidau. Ximaurrik onena materixa organikuakin nahastutakua, lastua edo garuakin por ejenplo. Abonua bera ardixana dok orturako onena. Gero landatzeakuan, landare batzuk ez dia ondo konpontzen alkarren onduan ta horri ere beitxu bijako. Espinakia adibidez ez da inokin ondo konpontzen, tipuliakin akaso. Baina denan gainetik, inportantiena lurra maittatzia."

Oraindik ez da berandu, asfaltopean dagoelako ortua.

**«Lainoetako kontuak laga eta lurrean jarriko ditut oinak»**

ALAIN

**«Kobazulorako bidea hasi behar al duzu, ba?»**

ALAITZ

Ze? Ziutateaz nazkatuta kobazulora bueltako bidea hasi behar al duzu ba, Alain? Kobako ataritik itsasoa ikusten bada igual konbentzituko nauzu. Ez dakit nik egun gure inguruan ba ote dagoen nahikoa lur, kobazulo eta etxalde denontzat. Izan ere hainbeste eta hainbeste lencleri entzut diot asfaltotik ihes egiteko gogoz dabilela.

Hala ere lan berrietan hastekoa bazara Alain, entzun ondoren kontatuko dizudana eta ia zer esaten didazun.

Tipo batek, begetarianoa bera, dendatan barazkiak erosteaz nazkatu eta bere etxaldean lur sail bat bazuela aprobetxatuz, ortuko lanetan hastea erabaki zuen. Denboraldi luze batez, bere lanaren eta lurraren fruituak jaten zituela, bere buruaz harro-harro eginda, medikuarengana joatea suertatu zitzaion. Ez zuen ezer larririk errutinazko osasun errebisio bat baino ez zen. Medikuak, emaitzak eskuan zituela, intoxikatua zegoela esan zion. Baina nola egon zitekeen intoxikatua, bereziki bere ortutik ateratako jakiak baino ez bazituen jaten. Horra erantzuna: lurra bera zen intoxikatua zegoena.

Inportantia da beraz lurra maitatzia, baina XXI. mendean berriro lurrera bueltatzeko jakin beharrekoak ez dira CCC ikastaro batian lau astetan ikasteko modukoak. Hortaz, kontuz Alain, izan ere, nere ezagun batek dioen bezala, ez dago kaleko begiekin baserrira doanaren baino begirada eskasagorik.

GITEP4 ENTZ)" Erz-P-E Ez.E"Nr (Nr2-crtz4K Efry"'TErv EL DuErv suG/ekg_g." Dra%

Benito Perez Galdos

## Agur Jexus

Zenbat ordu, zenbat eztabaida, zenbat asmo eta ilusio, zenbat egun alai eta pozez beteak izan ote ditugu elkarrekin eta orain kitto!

Hasiera 1956an izango zen alfabetatzean. 1958an gazteei euskara irakasten. 1960. inguruan, Ongarri sortu zenean, batzordeko eta euskal folkloreko arduradun bezala, eta gaurko Haritz Dantza Taldea denari ere, hasiera eman genion. 1962. urtean Ikastola sortzen egin genuen bon-oka. Berehala Elgorbarko Izarra sortzen eta bitartean, euskal jaiak antolatzen eta beste mila lan txiki eta handi, beti aurrera begira. Honela dio "Izarren Hautsa" liburuak Zenbat ordu pasa ote dituzte elkarrekin Elgoibar nola euskaldundu pentsatzen, "lanetik urten eta gero, hiru-lau batzar izaten genduzen, afaltzeko astirik gabe. Eta, ustez, etxerako bidia hartzen genuenian, goizeko ordu bata eta ordu bixak arte egoten ginen Gure Bide Elkartearen parean. Zenbat diskusio izan ote genduzen". Eta orain, kitto! Baina ez zoaz esku hutsik.

Laster arte, Jexus

**FEUX ETXEBERRIA, "PARAPAN"**

## PNV, berriro iruzurrik ez!

Batasunaren aktibitateen suspentsioa gatazkaren konponbide demokratikorako prozesuaren aurkako eraso argi bat da. Ildo horretan, hainbat alderdi (EA, AB, Aralar, Zutik, ANV) eta sindikatu (LAB, ELA, STEE-EILAS, EHNE, ESK) elkarrekin erantzuteko prest agertu dira eta lehenengo erantzuna BECeko ekitaldian eman zuten.

Erantzun honetatik kanpo geratu da PNV. Ez da esku gurutzaturik geratu, ordect bere prestutasun osoa erakutsi du, berriro ere, Espainiako Entzutegi Nazionaleko agindu ez-demokratikoak betetzeko, bulegoak itxiz, mobilizazioak oztopatuz, herritarrak identifikatu eta zerrenclak Entzutegi Nazionalaren esku utziz, bere lehentasuna erakutsiz: Estatu espainiarrarekin lerraturik Gatazkaren konponbide demokratikorako zabaldu nahi den prozesuari begira bere lekuaren bila ari da PNVko zuzendaritza: PSOEren alboan eta eskutik hartuta, CIU Katalunian jokatzen ari den paper berdina.

Hon-ela, PSOEk espainiar Estatuaren erreformarako aliatu sendo bat irabazten du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Eta PNVk instituzioen gestiogintza mantentzeko aukera eta, beraz, botere politiko eta ekonomikoaren kudeaketa. Hau guztia azaltzen duen adibide argi bat: Abiadura Handiko Trena. PNVk bilioi bat pezeta gestionatuko du hern honetan inoiz egin den obrarik erraldoienaren kudeaketan. Hori izan da Madrilek eskaini dion kontrapcutida, prozesuari begira bidailagun leiala izango duelakoan.

Testuinguru honetan ulertzen dira Josu Jon Imazek ezker abertzalerai eginiko eraso etengabeak: beren hautua justifikatzeko. Bien bitartean, herri borondateaz hitz egiten du, baina bizkarra ematen dio bai apartheida gainditzeari, baita proiektu erraldoiak sustatzeari. Berriro ere, lehenengo alderdia eta poltsikoa, gero aberria.

PNVk ezin ditu errepikatu duela 30 urte egindako akatsak, alderdien interesak eta gestioa gatazkaren konponbidearen aurretik lehenetsiz. Gatazka luzatzearen ardura berea izango da bestela.

**EZKER ABERTZALEA**

## Mako madarikatua

Gizatasun apur bat duen jende guztiak, pauso bat eman beharko luke Euskal Presoen eskubideen alde, Presoek diote, kartzela barruan denboraldi bat pasa gabe, ezinezkoa dela hura ezagutzea. Bisitan behin eta berriro joan gabe ere, zail xamarra da bisitatik irtetean sentitzen/pentsatzen dena azaltzea.

Kontua da, Euskal Preso politikoak espetxeetan jasaten ari diren eskubide zapalketak bere amaiera ikusi behar duela.

Behingoagatik, Elgoibarko herritarrak haien alde mugitzea, batzea, desio dugulako idazten dugu behin eta berriro. Horregatik mesedez, faborez, arren, gaur arratsaldeko 19:30ean Plaza Handian egingo dugun elkarretaratze isilera hurbiltzeko eskatu nahi dizu(e)gu.

**ELGOIBARKO ETXERAT**

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.coml

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZtA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jattea: izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.


Ir 131arren

LAGUNIZAJLEA Elgoib.;o Urldu KAZETAR!AK Amhco Ardowv As • PURUZITMEA Edur Ino^dD MAKETA1ZAILEA
KOMPARAILEPY, M,on li. tunt,h, 501,, Gunwradn inqr
J,SVS MIP I MOLII,913. Mileu Unzur, UPLI:
Vr, EsARAZA,HARRAGehmil IrramArIGA TRADA 4 4510ol, LEck Gonaum. 5S 1038,92 ISSN 11:39 1255

Ef! ELGOIBARKOIMILIA

Nofcrrtxt ennoramze, 2 • 2C:1 • ...
e 74 12 • iira:
943 74 37 co
E-pcs1): krner;Maclibancjannocom



,,`DANOBAT .4GOlT1 GAIJP0 DANCINAT 4:1ESTARTA itndid
3111 gizarze okinaa
Elgoibarko Lidolak rusko Joutiorozgko Kultura Sailai: ela Foru Aidunchak dauz lugundurako

## KEXAK

• San Frantzisko kaleko estoldak solte daude eta autoak pasatzen direnean zarata handia ateratzen dute: 'Kartutxo eta Txuri-Beltz tabernen artean bizi naiz. Goizeko 6:00etan irekitzen dute kalea eta autoak pasatzen hasten dira. Estoldak ez daude lurrean ondo itsatsita eta autoak gainetik pasatzen diren bakoitzean sekuiako zarata egiten dute. Asteburuetan nahtiko zarata jasaten dugu kale honetan, mesedez, astean zehar ondo io egitea gustatuko litzaiguke. Dagokionak konpondu ditzafa estolda hauek".

• Birziklatzeko arazoak jarri zizkidaten Garbiguneko komioian: "Elgoibarrera Garbiguneko kamioira eraman nituen nire hondakinak eta bertako langileak ez zidala poltsa hartuko esan zidan, denda bateko hondakinak zirelako. Zerbitzu hau etxeetarako zerbitzua omen da. Eta nik zer egin behar dut? zakarrontzira bota? Udaletxeko 6 ordenagailu pantaila hartu zituzten birziklatzeko baina nire zabor poltsa ez. Mankomunitatetik esan zidaten dendek zerbitzu hori ordaindu egin behar dugula. Ez dago eskubiderik Birziklatzea nahi badute, gutxienez, errazatasunak jar ditzatela".






• Larunbatean portaleko barandila apurtu zietela esan digu Gabriel Krutzelegi kaleko bizilagun batek: "Asko gutxitu den arren, oraindik gazte koadrila batzuk larunbatetan botiloia egiten dute eta horietako batzuk gure etxe inguruan bildu ziren jan zen larunbatean. Dena zikinduta uzteaz gain, igande goizean gure portaleko barandila apurtuta aurkitu genuen. Ez dago eskubiderik. Etxe berriak dira eta dagoeneko apurtuta. Udaltzainei arreta handiagoa jartzeko eskatu nahi nieke, botiloiaren ondorioak azken finean, herritarrok jasaten ditugu-eta".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posto: banenUeigoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
**12** 943 74 41 12

## komikia

*Hit* *miPt&-wr Pirmehr*




*KoAo.o* **042**

## 1956-2006

# Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

## 1966: Elgoibarko Izarraren gau-eskola

1966an ekin zion Elgoibarko Izarrak helduen euskalduntze-alfabetatzeari. Hasiera oso xumea izan zen. Felix Ebeberria zen irakaslea, eta Marisabel Mujika, Maite Ajuria, Marisabel Arakistain eta

Asun Uriarte izaten zituen aldamenean laguntzeko. Eskolak eman aurretik bostak elkartzen ziren zer eta zelan eman komentatu eta erabakitzeko. Gero, bakoitzak bost edo sei laguneko talde bana hartzen zuen. Marisabel Mujikak eta Maite Ajuriak esan digutenez, *gu oso gaztiak giñan klasiak ematen hasi giñanian. Akordatzen gera oso jende nagusixa zakaula klasian, nagusixa eta inportantid,* Jende inportantearen artean, besteak beste, medikua (Eusebio Esnaola), notarioa (A(tuna) eta Udaletxeko abokatua (Juan Goirizelaia, Batasunako Jone Goirizelaiaren aita) zeudela jakin dugu. Marisabel ere ondo akordatzen da sasoi hartaz: *"nik ez naban klasetik emateril< nahi; ikastera oso gustura juten nitzan Felixekin, baina ematea ez jatan batere gustatzed.*

1967an 57 ikaslek jardun zuten euskara ikasten. Sasoi honetako ikasle eta irakasleen meritua ere ez zen makala. Ez zuten ez metodologiarik, ez eta gela egokirik ere euskara ikasteko, baina, hala ere, astean pare bat aldiz elkartzen ziren. Eskolak Parrokiako lokaletan, *Loritoko* ikastolan eta Plaza Txikiko alhondigan ematen zituzten. Hiru lokal hauek ikastolako umeentzat ercibiltzen ziren egunean zehar, eta gauean, berriz, helduek euskara ikasteko.

Aurretik esan dugun bezala, eskolak iluntzetan izaten ziren, astean pare bat egunetan. Baina, jakin dugunez, 66an lehen ikastaroak ematen hasi ziren. Bi orduko jardunak ez zuen askorako ematen, eta eskola solteak eze ezik, hiru hilabeteko ikastaroak ere hasi ziren eskaintzen.



## IIRANZO

AEK EUSKALTEGIKO IKASLEA

*Duela 20 urte inguru hasi zen Begoña iranzo euskara ikasten eta gaur egun, euskaraz egiten du bere lehenengo hitza toki guzfietan. Bere amak ez omen daki euskaraz, eta berarekin bakanik egiten duela gazteleraz kontatu digu.*

**• Zergatik hasi zinen euskara ikasten?**
Gure lagun arteko koadrilan denak euskaldunak ziren, ni eta beste bat izan ezik, eta gu aurrean geundenean, haiek gazteleraz hitz egiten zuten. Ez nintzen gustura sentitzen, azken batean, erderaz hitz egitera behartzen genituen koadrilakoak eta euskara ikasten hastea erabaki nuen.

**• Zein zen zure euskara maila une hartan?**
Zerotik hasi nintzen. Koadrilakoak entzuten nituen batzutan euskaraz hitz egiten, baina nik ez nuen hitz bat bera ere esaten euskaraz. Nire gurasoak erdaldunak dira eta erderaz egiten nuen dena.

**• Zenbat denbora aritu zinen euskaltegian?**
8 urte inguru. Egunero joaten nintzen bi orduz, eta oso gustura nago lortu dudan euskara matlarekin. Zaila da, eta denbora behar da, baina gogoa eta ilusioa izanez gero, posible da ikastea eta Euskal Herrian bizitzeko merezi du ahalegin horrek. Jende guztia animatuko nuke euskara ikastera

**• Zer egin zitzaizun zailena?**
Aditzak ikastea eta irakurtzea. Gaur egun ere oso gaizki irokurtzen dut, asko kostatzen zait, baina saiatzen naiz.

**• Erabiltzen al duzu euskara gaur egun?**
Bai, etxean dena egiten dut euskaraz nire senarrarekin eta umearekin. Nire amak ez daki euskaraz eta berarekin gazteleraz egiten dut, baina bestela, kalean, dendetan eta toki guztietan euskaraz egiten saiatzen naiz.


URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABIL1TATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 . ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

,,THE 1 1 (
11ARTFORD
ASEGURUAK




## AKORDATZEN



**MARI TERE IRAEGI**

1932an jaioa

# «Karnabalak»

Asko gustatzen jakuzen kamaalak kuadrillan. Boda bat egin gendun behin kamabaletan. 18 urte eukiko genduzen. Oso ondo pasau gendun. Disfraza preparau eta pruebak egitten, egunian bertan baiño barre gehixago egin genduala uste dot. Jantzi eta kalera urten giñan poz-pozik, baiña orduan ez zaguan ezer kalian, kafe bat hartzeko ixa kafeterixarik ere ez zaguan, eta kalian ibilii bihar izaten zan, gora eta behera.

Ez giñan gehixago disfrazau. Ez da oin bezela.

Gaur egun, soziedadian edo tabemaren baten zure festejotxua egitten dozu, eta primeran; baiña orduan ez.

Erretratuak etara genduzen eta rekuerdua behintzat badakagu. Barrutianekua, Condenekua eta gero Orbea kafeterixak bazagozen, baiña ez zaguan hara juteko ohitturarik.

Gu izongo giñan tabernetan sartzen hasi giñan lehenengo emakumiak. Kuadrillan gizonezkuak ere zeian zagozen, eurekin sartzia errezagua zan.

Oin dana da erretza.



## GURE BERBA

### Egittura aipagarri
### UKAN aditza (7)

Gaurko adibidietan, UKAN aditza ekarriko dogu hona. Erabillera batian, lehenengo esaldixetan, hiztuna bera aditzian sartzeko erabiltzen da, IZAN aditzaren ordez: nere lehengusua zan esan biharrian, lehengusua naban esaten da, trinkuago eta ekonomikuago, gaiñera. Azkenengo esaldixetan, EDUKI aditzaren ordez erabili da UKAN.

Gaztien artian ezagunegixak ez diralakuan ekarri dittut hona.

*- Horta eton-ata egon ziran, hamengua zaban ama ta.*

*- Gelaixok soiñua. Jesus! Lehengusua noban gaiiiera Gelaixo.*

*- Da bera ezkonduld dago. Alabatxo bat dauke. Ta andna zerakua <u>dau</u>, larruskainguct.*

*- Bai, andna <u>zaban</u> Kakatzakua, Nikola-Sa*

*- Handikan kilometro bira, Urberuaga de UbIlla, han zaguan zer bot, batalloe bat, komuntska, izena ere badakitt, Roso luxenburgo izena <u>zaban</u> batalloiak*

*- Inclalecto Prieto... gizon sendo bat zan, hamentxe kalietan ere pasautakua da haura, beste batzuekin. Eta, ez dakitt nik, seme bat zaukan harek, Luis uste dot zabala izena.*

1



**ESKERTZA**

2006ko otsailaren 20an hil zen

*Carlos Ansola Arrillagaren* sendiak,

bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



EZAGUNAK

lagun

KIKE ONARRIZ

# «Lotsa eta konpleivak gainditzeko arma bat izan da umorea»

Tolosarra, Inauteri garairako pertsonaia egokia. Oso gustuko ditu mozorroak eta azken aldian telebista-ko pantailan Mihiluzearen mozorroarekin agertzen zaigu. Berba egitea eta umorea dira bere beste za-letasunak eta bere ogibidearen arclatzak. Kike Amonarriz, euskara eta umorea bateratzen dituen gizona.



• Telebistan makina bat saio egin dituzu. Gehienak euskararekin eta umorearekin lotutakoak. Beti batera doaz Kike, euskara eta umorea?

Saiatzen naiz baiera joan daitezen. Hizkuntzak aurrera egingo badu oso konnotazio positiboak erantsi behar zaizkia Bestalde umorea egiteko daukagun oinarririk funtsezkoena hizkuniza da. Beti maite izan dut bi ardatz horiek nahastea. Berez serioak izan daitezkeen gauzak, saiatzen naiz umarez azaltzen.

**• Betidanik izan zara umoretsua?**

Txikitan ez, oso lotsatia nintzen, eta seguru aski umorea izan da arma bat lotsa eta konpleiu horiek gainditzeko. Oso gertutik ezagutzen nautenek badakite oso lotsatia naizela.

**• Eta Kike Amonarriz serioa nolakoa da?**

Pertsona guztiok dauzkagu milaka aurpegi eta nik ere badut alde serioa. Lana ahalik eta ongien egiten saiatzen den perisona serioa izaten badakit Inguratzen gaituen mundu eta bizitza honek sertotasunerako, sufrimendurako aukera gehiegi ematen ditu. Beraz, logika askotatik kanpo bizi dugun mundu honi aurre egiteko arma ona da umorez erantzutea.

**• Gaur egun zertan diharduzu lanean?**

Telebistako Mihiluze saioarekin dihardut; baita ere Argia astekartruko kolaboratzen eta lan zehatz batzuk egiten.

**• Aurrez beste lan batzuetan ere jardundakoa zara, ezta?**

Bai. Ikasten ari nintzen bitartean, Tolosaldea Beneuskaldunizeko elkartean 4 urtez aritu ninken, Gero Tolosako Euskara Zerbitzuan 5 urtez eta handik Siadeco ikerketa taldera egin nuen jauzi, han beste 10 bat urte. Gero, umorea eta ikuskizunaren aidera lerratu nintzen. Urte batzuk telebistaren inguruan egin nituen. Orain




*Testua: Irati Agirreazakiegi*

dela 5 urtetik Argia astekarian dihardut eta tartean Antion Olariaga eta Asisko Urmenetarekin Zazpiak Batman kolektiboan besteak beste hazakliak antolatzen. Soziolinguistikaren alorrean, Euskararen Aholku Batzordeko partaide gisa, hizkuntza kalaatearen inguruko Ixostena egin dugu.

• Txiste **kontalari moduan ibilitakoa ZOPZI.**

Tolosaldea Berreuskalduntzeko elkartean ari nintzela hizkuntzaren aldeko ekinizak egin nahi genituen. Gainera, Argian orain dela 25 urte hasi nintzen astero lxisteak idazten, bururatu zitzaigun Tolosan bdste afart bat egaea. Hortik hasi eta lau bat urtez ibili nintzen Joxe Ramon Galarragarekin te kontari. Hura zela medio lau Ixiste kassete grabatu genituen, telebistan gauzak egiten hasi nintzen, eta Argian publikatutako txisteelcin ere 5 liburu kaleratu ditut.

**•Telebistako saltsan nola sattu zinen?**

Garai hartcrn euskaraz txiste kontari genbiltzan bakarrak ginen. Programa batzuetara deitzen ziguten, eta urte batzuetara Aizpea Goenagak eta Elena Iruretak deitu zidaten Hau da hau komedia egiteko. Ondoren etorri ziren Balinda, Txiskola, Sikofonia, Beni eta Marini. Gero Bai zera! saioa Jasone Osororekin. Hura amaituta kamera atzean egon nintzen Txini, Mirri eta Txiribitonekin. Tarte batean telebista ulzi eta Argian eta hitzaldiak ematen ibili nintzen.

**•Inauterietan gaude eta tolosar zaren aldetik mozorroa prest izango duzu, ezta?**

Prest daukat bai, baina ez dut zein den esango. Hartzen dugu lana prestatzen, baina prestaketa egunak askotan Inauterietako egunik onenak izaten clira.Aurien programa dela medio fomnalago ibili beharko dut.

## «Tolosako inauteriek berezko nortasuna gorde dute»

Zer dute Tolosako Inauteriek berezia?

Frankismoan bizirik iraun zuten bakarrak izan ziren, belaunaldien arteko transmisioa ez zen eten. Gainera partehartze masiboa, herrikoitasuna, irudimena_ lortu dute. Festek homogeneizaziora jo duten honetan Tolosako Inauteriek berezko nortasuna gorde dute.

**• Gaur egun Mihiluze saioan ari zara. Nolako saioa da?**

Euskara eta umorea bitarteko dituen lehiaketa da; batregurearen, komunikazioaren eta berbaren inguruko euskal produktua.

**•Nolakoa da egun euskararen egoera?**

Betetzen ari garen botila bezala ikusten dut. Azkarnago bete zaekeen, baina momentu erabakigarri batean gaude. Oso positiboak dira azken hilabeteetan sortzen ari diren eztabaidak eta planteamenduak denek adierazten digute berrikuniza urteak datozela eta normalkuntza prozesuaren indartze urteak ezagutuko clituguia.

• Normalkuntza honetarako Mihiluze be**zalako** saioak beharrezkoak dira?

Euskarazko produktu erakargarriak behar daugu. Konpetentzia egin behar dugu erdarazko produktuekin. Kultur merkatuan gurea bezalako hizkuniza komunaate txiki batek ahalmen politiko-ekonomiko handirik ez du. Beraz, gertuko produktu erakargarriak sortu eta bideratu behar ditugu.

**• Mihiluze da saioaren izena, baina inoiz gorde behar izan dugu mingaina?**

Bai, noski. Gauzak esan baino lehen bi aldiz pentsatu behar dira. Ez gara isolatuak bizi eta esan eta egindakoek beti dituzte onclorioak Esaten dena izan behar da pentsatzen dena, baina pentsatzen den guztia ezin da esan.

**•Lehen saioek izan dute arrakasta. Zein da arrakastaren funtsa?**

Iortu dugu pantailatik harat giro bat zabaltzea etxeetan. Giro alaia, gertukoa. Platoan daukaguna festa bat da. Parte hartzeko ez da askorik jakin behar, behar dena da gogoa eta mihiluzeon tribuan dauden baxikeriekin gozatzeko gogoa. iendeak badu gogoa hizketarekin esamesekin... jolas egiteko giro atseginean.

**•Esamesak aipatu dituzu, baina zuk sakelako telefonoa asko erabiltzen duzu?**

Bai. Lanerako eta baita bestela ere. Adiktoa naizenik ez dut esango baina asko erabiltzen dut. Esamesak ere ia egunero bidaltzen ditut

## PROTAGONISTA



### IgorElizburu

Valentziako maratoian hartu du parte Igor Elizburu elgoibartarrak, hand-bike modalitatean. Igorrek 2 ordu eta 14 minutu behar izan zituen 42 kilometroak burutzeko. Iaz Bilboko maratoian lortutako denbora 9 minututan hobetu du eta oso gustura geratu dela kontatu digu: 'Negua oso gogorra da hemen eta askoz gutxiago entrenatzen dut, baina emaitza ona lortu dur. Valentziako lagun batzuk animatuta hartu du parte maratoi honetan. Guztira 5.000 korrikalarik hartu zuten parte, horietatik 7 lagun hand-bikean. Datorren hilean Azkoiti-Azpeiti proban parte hartuko duela esan digu.

## NOTIZIA

# San Migel auzorako errepidea berritzeko proiektua atera du Aldundiak lehiaketara

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen Departamentuak San Migel auzorako errepidea berritzeko proiektua atera du lehiaketara. Gutxi gorabehera, Santa Klara auzotik hasita, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugarainoko zatian egingo dira berrikuntzak GI-2636 errepideko 0,665 kilometrolik 6,410 kdometrora, hain zuzen ere. Guztira 6 kilometroko luzera izango du berrituko duten errepide zatiak



**200.000 euro**

Aldundiak atera duen proiektuak bi zati ditu: Bata Aia herrira doan errepidea berritzea izango da eta bestea Elgoibarko San Migel auzorako errepidea. Guztira 335.245,60 euroko aurrekontua dauka proiektu honek. Horietatik 200.000 euro erabiliko dira Elgoibarko zatiarentzako.

San Migelerako errepideko obrak hasten diren unetik, bi hilabeteko epean bukatzea aurreikusten da.

## ZENBAKIA

**101**

Bukatu da Elgoibarko ikastetxeetako aurrematrikulazio kanpaina eta aurtengoan 101 ume berri matrikulatu dira eskolaurreko fehenengo urtean, iaz baino 37 gehiago. Beraz, udaka oponak bukatzen direnean, eskolara joango dira estraineko aldiz, barre eta negar artean.

CD

cn



Gogoan al duzu e Alfred Hitchcock-en 'Txoriak" filmea? Errealitateak, beste bēhin, fikzioa gainditu du. Airetik ote dator mehatxua? Begi txarrez, mesfidati, begiratu behar ote diegu Deba ibaiko ahate kolonia baketsuari edo Plaza Handiko usoei? Tantaka bada ere, hegazti gnpea sortzen duen H5N1 birusa hasi da Europara ere zabaltzen. Herriaide askotan hasi dira neurnok hartzen eta etxaldeetako hegazti guzbak itxita edukitzeko agindua eman dute. 7orionez, ez dugu ezer arrarorik somatu argazki hau ateratzera hurbildu garenean.

# Apiril erdialderako bukatuko dituzte Gaztetxeko obrak



Joan zen astean hasi ziren Mupem enpresa zaharrean Gaztetxe berria egiteko obrak eta dena behar bezala joanez gero, bi hifabeteko epean bukatuko dira obra hauek. Udaletxelik esan digutenez, apirileko bigarren asterako obrak bukatuta egotea espero dute.

400m2

Aikia Eraikuntzak S.L. enpresak irabazi zuen lehiaketa eta bera ari da gaztetxeko obrak burutzen. Gaztetxe berriak 400m2ko azalera izango du gutxi gora behera. lokalaren sarrera errepidera ematen duen fatxadan egongo da. Eskailerak eta aldapa bidezko beste sarrera bat ere izango du gurpildun aulkian dauden ezinduentzako.

Lokal barruan bi gune desberdin bereiztuko dira: Erdigunean ekintza desberdinetarako gela bat jarriko da, bulego bat, sukaldea, egongela, biltegia, entseguetarako gela eta hiru komun, hauetako bi ezinduentzako izango dira. Bestalde, kontzertuetarako gunea, eszenatokia eta ban-a ere jarriko dira.

Gaztetxe berria egiteko 127029 euro inbertituko ditu Elgoibarko Udalak

2812035 Legea betez,

Hemen EZIN DA erre




gabeko gunea

## rretzea e e atzen edo baimentzen duten kartelak euskaraz

Gurean-bai Merkataritza proiektuaren bamean, Elgoibarko Izc:rrak eta Udalak erretzea debekatzen edo baimentzen duten kartelak atera ditu euskaraz. Tabakoari buruzko legearen ondorioz, Elgoibarko establezimenduelan, eta batez ere, tabernetan erretzea debekatzen edo baimentzen duten kartelak ageri dira, eta asko erdara hutsean. Establezimendu baten ardura duen edozein herritorrek kartel horiek eskura ditzake Elgoibarko Izarra elkarteak Ubitarte 4an duen egoitzan edota 943 741746 telefono zenbakira deituz (Amaia).

## MOTZ-MOTZIAN

### Leire Dieguez Errosario kaleko zozketako irabazlea

Gabonetan Errosario kaleko komertzioetan erosketak egin zituzten herritorrek zozketa baterako boletoak jaso zituzten eta Leire Dieguez izan da irabazlea. Errosario kaleko komertzioek eskainitako produktuekin osatutako otarre handi bat eta Debako Kresala Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuitoa irabazi du leirek. Zorionak!



### 1951ko kinto bazkaria

1951n soldaduzka egindakoek kinto bazkaria egingo dute martxoaren Iln Sigma jatetxean. Bazkaria eguerdiko 14:30ean izango da. Interesatuek iatetxera bertara deitu dezakete izena emateko. 943 74 85 31

### Saharako haurrak

Uda honetan saharar herriko haurrak hartzeko kanpaina bultzatzeko asmoa du Elgoibarko Udalak Programa honetan parte hartu nahi dutene herritarrek Elgoibarko Udaletxeko Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri daitezke martxoaren 30a baino lehen.

### San Bartolomeak

Udaleko Kultura Batzordeak ireki du aurtengo San Bartolomeetarako proposamenak egiteko epea. Interesatuek datorren apirilaren 1 era arte dute Gazteen Eguneko eta gainontzeko musika ekitaldietarako taldeak proposatzeko aukera. Informazio gehiago 943 74 21 58 telefonoan.

**Gero eta jende gutxiago mozorrotzen da inauterietan gure herrian.**

## Elgoibarren inauterietako galtzeko arrisku11 1 JO ikusten al duzu?

**LUIS PRIETO**
Arotza
26 **urte**



Ez dut uste, inauteriak San Ferminak modukoak dira, ez dira inoiz desagertuko. Ni behintzat mozorrotzen naiz eta oso ondo pasatzen dut. Giro polita egoten da."

**JAVI SALAZAR**
Ikaslea
**15 urte**



Gero eta jende gutxiogo mozorrotzen da, baina ez dut uste desagertuko direnik. Ni azken urteeton beti berdin mozorrotu izan naiz eta aurten ez naiz mozorrotuko."

**EVA MADERA**
Ebcekoandrea
32 urte



Ez. Ni ez naiz mozorrotzen, baina izugarri gustatzen zaizkit inauteriak. Gazteak gero eta gutxiago mozorrotzen dira, baina umeek oraindik mantentzen dute ohitura."

**JUAN LUIS INES**
Muntatzailea
32 urte



E z. Azken urteotan jende gulxiago mozorrotzen da, baina gu urtero mozorrotzen gara koadrilan. Giro polita egoten da, baina jende asko ateratzen da mozorrotu gabe."

# [ BAI aia EZ?

## Hegaztien gripea gure artera iritsiko dela uste duzu?

**BAI %72**

..Zalantzarik gabe. Zeruan ez dago mugarik, herrialde batetik bestera libre hegan egin dezakete, hortaz, zergatik ez da iritsiko kutsatutako hegazti bat gurera?"

**Z7 %1)8**

..Kutsatutako hegaztiren bat edo beste iritsiko da, beharbada, baina aurre egiteko prestatuta gaudela sinetsi nahi dut. Bestela ehiztariak atera beharko ditugu.""

**Datorren asterako....**

Hiru lagunetik batek 804 euro baino gutxiago kobratzen ditu Euskal Herrian.

**Pasa al daiteke hilabete" 804 eurorekin?**


Bidali SMS bat:
BARREN (
7505 zenbakira
SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

**Kresola**
HOTELP



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean.** Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiagot
vw,waisianoteles.com

[ GOMENDIOA ]



**Idoia Martikorena**

SANATANA DHARMA ELKARTEKO

irokaslea

# Zer da yoga?

ndustria eta teknologia alorreko aurrerapenak hain azkar ematen diren garai honetan, dena modaz pasatzen dela ikustera ohituta gaude, dena zaharkituta gelditzen da.

Baina bada historian zehar aldaketarik jasan ez duen zientzia bat: yoga, hain zuzen ere.

Gizakiak sekula ez du izan gaur egun daukan guztia, baina hala eta guztiz ere, ez gaude geure buruarekin konforme. Yogaren zientziok geure burua hobeto ezagutzen lagunduko digu, bere teknika eta tresnen bitartez, gizakiak hainbeste desio duen zoriontasuna bilatzen lagunduko digu.

Yogaren teknikak pertsonalitatearen hiru aspektutan eragiten du, hau da, fisikoa, emozionala eta mentala.

Bestalde, yogaren lana bost puntu garrantzitsutan oinarritzen da:

- Arnasketa zuzena
- Elikadura orekatua
- Ariketa egokia
- Beharrezko atsedena
- Pentsamendu positiboa

Bost puntu hauetan oinarritzen dira pertsonak egiten dituen ekintza guztiak, beraz, alor hauek ondo lantzen baclira, egoera fisiko, emozional eta mentalaren arteko oreka egokia lortuko dugu.

**MEDIKUNTZA ALTE**

Kemen Belardenda
(Medikuntza naturala, E de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

tana Dlianna Yoga Elkarte.
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:
***Mendaro***
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

(Optometrio, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**ORTOPEDIAK**

Itzi ta
San Frantzisko, 12' • TeI: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

**TZ KUNIKAK**

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34

**FISIOTERAPIA**

Ainhoa Fisioterapia

eskeintzen da.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)
Jausoro, 6 behea

z z.z
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, eriajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

**PODOLOGOAK**

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

ZUBIAURRE AUZIA

# iban Zubiaurreren auzia azken txanpara iristen ari da

Bere nahiaren aurka bada ere, allniste iturri izaten ari da Iban Zubiaurre mendaroana azken aldian, batez ere, aste honetan. Izan ere, Realarekin zuen kontratua hausteagatik, Mendaroko futbolariak zenbat ordaindu beharko duen erabakitzeko epaiketa egin zen asteazkenean.

Zazpi hilabete luzez bilera, negoziazio eta epaitegietan murgilduta ibili ostean, Zubiaurre auzia amaieraren hasierara iristen ari dela dirudi: astebete edo bi barru emango du jakitera epaileak jokalariak Realari ordaindu beharreko diru kopurua zenbatekoa den.1<ontratua haustearen truke Realean jasotzen zuen diruaren araberako kopurua ordaindu beharko du ziurrenik, nahiz eta Realak 32,9 milioi euro eskatzen dizkion, bere etete klausulan ageri zen kopurua, alegia. Bien bitartean Durangoko Kultural taldearekin entrenatzen dihardu Zubiaurrek sasoiko mantentzeko. C.D. Elgoibarren, jokatu zuen lehen taldearekin ere hasi zen entrenatzen, baina Realaren presioen ondorioz laga beharra izan zuen.



## Guarda omenezko mezak

Martxoaren 1ean, lanegunean, tokatu da aurten Aingeru Guardakoaren : . : Hori dela-eta, Plaza auzoko .. ..,nariaren omenezko mezak martxo- ,ten 5ean, domekan .—.--n1.a.uko dira Aingeru Guardakoar. . . : . Meza ondoren ardo goxoa eta pastak banatuko dira eliztarren artecm. Duela urte batzuk lai entzutetsuak ospatzen zituzten auzotarrek eta meza ostean bertsolari eta herri kirol erakustaldiak ere izaten ziren, baina lagata daude oram_

## Antzerkia eta txokolatada inauterietan




Ikastolako ikasle eta gurasoek gaur, hilak 24, hasi dituAen ospakizunek bihar izango dute jamnipena. Amo Guraso Taldearen eskutik eta Udalaren laguntzarekin, gaztelxoenei zuzendutako inautetietako ekintzak izango dira bihar, hilak 25, Goñati pilotalekuan. Hasteko, "Kutxo eta Blasa' izeneko antzerkiaz gozatzeko aukera izango dute 17:00etatik aurrera. Anulseko 18:00etatik aurrera txokolatada egingo da bertaratzen diren guztientzako eta ondoren diskoteka saioa. Antolatzaileek jendea mozotrotuta agertzea espero eta desio dute jaiari kolore eta bizitasun gehiago ematea lortzeko.



KILI KLIK

### Motxaila Eguna

Auzolanianek antolotuta Motxaila Eguna ospatu zen otsailaren lln. Estraineko aldia izan zen, baina urtero egiteko asmoa dute. Garagartzatik Haitzbeitzeko kobara joan eta bertan, tpuinkontaketak, txalaparta, pailazo klown ikuskizuna eta berisoak izan ziren. Argazkiko perkusionistak °Ititoen Kejtoak" dira. Mendaroarrei moixaila deitzen diete. Dirudienez, ijitoak moztaileak zirelako, astoen ilea mozten zutenak, alegia



## JAVIER GALLEGO

Espainiako Irratizaleen txapeldunordea

# «Japoniar batekin kontaktatzea gustatuko litzaidake»

*1991. urtean hasi zen Javier Gallego irratizaleen munduan. Elgolbarko GARE Irratizaleen Elkarteko kidea da mendaroarra eta David Mekolalde elgoibartarraren atzetik, bigarren gelditu zen Espainiako Irratizaleen Txapelketan. Zaletasun biixia eta nahiko ezezaguna. Gaurkoan mendaroar honek irratizaletasunari buruz gehlago jakiteko aukera eman digu.*

Gustura geratu al zara Espainiako Txapelketako bigarren postuarekin?
Bat. Gure asmoa parte hartzea bakarrik zen hasieran, irratizaletasunari bultzada apur bat emateko asmoz Baina txapelketak aurrera egin ahala, emaiiza oso onak genituela ikusi genuen. 8 probatan hartu nuen parte eta Bartzelonakoa nik irabazi nuen. Azkenean David lehenengo ela ni bigarren. Ordu asko sartu ditugu, baldintza meteorologiko oso karrak tokatu zaizkigu zenbait probatan, eta merezita irabazi dugu. Roberto Sanchez gure taldeko beste kide bat ere oso ondo hasi zen, baina pare bat probatan behera egin zuen eta azkenean bosgarren postuan sailkatu zen.

**• Nondik hartu zenuen parte?**
Espainia mailako kapetketa izan arren, bakoitzak bere herritik hartzen du parte. Ni normalean Mendaroko Gainixipixa mendira igotzen naiz Otarre eta Karakate mendiak ere gustuko ditut.

**• Zein da txapelketaren helburua?**
Proba bakoitza talde batek antolatzen du. Kasu honetan, 12 talde izan gara partehartzaileak, beraz, 12 proba. Onena, de antolatzailearekin kontaktatzea da, baina uhinen zabalkundea oso ona ez bada, geriuko kontaktuen kopurua hartzen da kontuan.

**• Nola kontrolatzen dira kontaktuak?**
Irratizale bakoitzak QS1 txartelak ditu eta kontaktu bat egiten denean, bestearen datuak hartzen dira txartelak elkartrukatzeko. Gero postaz bidaltzen ditugu txartelak eta antolatzaileek kontaktu gutiak egiaztatzen dituzte.

**• Zein izan da lortu duzun kontakturik urrunena?**
Australiar batekin egin nuen kontaktua behin. Senegal, Argentina eta Uruguay ere lortu ditut. Senegalekoa itsasontzi batean zihoan gizon bat zen. Bi aldiz lortu nuen berarekin kontaktatzea, baten Senegalen eta bestean Ganbian zegoen. Asia falta zait oraindik, Japonekin kontakturen bat egitea gustatuko litzaidake. Asko daukat oraindik lortzeko.

**•Nola hasi zinen irratizaleen munduan?**
Betidanik gustatu izan zait Umea nintzela, Andorrara bidaia egin nuen autobusean eta txoferrak irratiz hitz egiten zuen bakoitzean txundituta gelditzen nintzen. Gerora, soldaduzkan ere irrati transmisioak egitea tokatu zitzaidan. Irratia erosi eta poliki-poliki hasi nintzen. 91. urtea zen. Orduan jende mordoa zebifen irratigintzan. Irratia piztu eta berehala kontaktu mordoa egiten genituen.

**• Gaur egun, gutxiago al zarete?**
Bai. Intemetek min handia egin dio irratizaletasunari, jende asko kendu digu. Gainera, uhinen zabalkunderako ez da garai ona. Ez da oso zaletasun ezaguna.



**«Intemetek min handia egin dio irratizaleen munduari»**



# GAZTIA N AIZ

## Gat, gAia . .

## S 1PI S I~ I

SINUOSEREN PROPOSAMEN BIHURGUNETSUEK LEKU ETA DENBORA ANITZETARA ERAMAN GAITZAKETE. ZEHAZKI ZER DEN, ZER EGITEN DUTEN DEFIN1TZEN HASTEA ZA11A DA ETA BEHARRIK ERE EZ DAGO, BAKOITZAREN ESKU 1AGATZEN DITUZTE-ETA INTERPRETAZIOAK. KONTUA DA 10 URTE BETE DITUZTELA ETA OHITURA DUTENEZ INAUTERIEN BUELTAN ESKAINTZEN DUTEN KONTZERTUA GAUR, HILAK 2 4, AURKEZTUKO DUTE KULTUR ETXEKO SOTOAN (22:30). 1BAN URIZAR ETA PATXI ZABALETA DIRA SINUOSEREN ARIMA. AZKEN HAMAR URTEOTAKO ERREPASOA EGIN DIGUTE.

**Zer da zuentzat Sinuose?**
Bakoitzak dauzkan musika proiekiu paraleloak direla-eta, kajon desastre modukoa. Gure beste taldeekin egiten ez dugun guztia egitera ausartzen gara. Edozer egiteko askatasuna ematen digu, inolako mugarik gabe. Sinuose hitza bera kontzeptualki ondo doakigun berba da. Zuzena ez den bide bat adierazi nahi du eta gure musika ere halakoxeo da, ez dakizu ondo nora dijoan.

**Hamar urte bete dituzue. Noia hasi zineten?**
Erdi broma erdi lanbetan izan zen. Euskadi Gazteak egiten zuen maketa lehiaketara lan bat bidal genezakeela bururatu, eta laupabost abesti grabatu genituen zinta batean. Elkarrekin jotzen genuenean, beti zerbait atertatzen zela konturatu ginen. Jotzerakoan baino, emaitza entzuterakoan ohartu ginen gure arteko 'feeling'-az. Aiba la hostia, hau bai ona! harritzen ginen askotan. Gure sorkuntzek inprobisazio ikutu handia dutenez, askotan ez zaude emailzari adi eta ikuspegi orokorra galtzen da. Horren ongi pasa genuenez, zuzeneko saio bat eskaintzeko gogoa sartu zitzaigun. Eta halaxe, inauterietako martitzenean, mozorroturik atera ginen Malape tabernan.

**Nola gogoratzen duzue lehen aldi hura?**
Oso urduri geunden. Garai hartan beste modu bateko taldeekin jotzera ohituta geunden (1\lahi Ta Nahiez' taldean ni eta 'Zokoan* taldean Iban). Haiekin gauzak,



"Ez dugu letrarik erabiltzen soinu garbia sortzeko"

IBAN

nolabait, finkatuta dituzub aterafzen zara zuzenekoetan. Gure kasuan, ez genekien zer gertatuko zen. Blokeatuta, zuriz, geratzeko beldur ginen. Zorionez oso ondo atera zen eta hurrengo urtean bemz ateratzeko irrikaz geratu ginen. Denborarekin eta elkarrekin horrenbeste aldiz jotzeareen ondorioz, segurtasuna loriu dugu, badakigu bestea gutxi gorabehera nondik aterako den.

**Zenbat urtean atera zineten Malapen?**
Bost urtean. Seigarrenean kolaboratzaile gehiago atera zitzaizkigun eta zerbait handiagoa egiteko aukera genuenez, Herriko Antzokira jo genuen. Gero soloa erabiltzen hasi ginen. Benetan gustura sotoan egoten gara, tamaina eta kondizio aproposak ditu. Jo dugun espazio guztietatik erosoen senritu garena da.

**Noiz hasten zarete prestatzen?**
Abendua iristen denean hasten gara zerbait prestatzen. Halere, 10 urte hauetan kontzertuak eta erakusketa bat edo beste antolatu ditugu. lazko Sotoko Hotsak, 5 kontzertutako zikloarekin gustura geratu ginen eta baliteke antzerako zerbait errepikatzea.

**Ez duzue abesten?**
Ahotsa bai, baina letrarik ez dugu inoiz erabili. Musika eta melodiekin bakarrik jolasten dugu, soinu garbia sortu nahi baitugu. Ez dugu hartzailea mezu konkretu edo letrekin nahasiu edo bideratu nahi. Hitzak tartean daudenean, atenlzioa bereganatzen dute eta musika galdu egiten da. Gainera, letrarik ez erabiltzeak ez du gutxiago trasmitituko duzunik esan nahi, alderantziz, interpretazioarako aukera ematen bailu. Halere, ez pentsa ezer orijinala edo benia egiten ari garenik, hau dena aspaldi asmatu zuten, baina gogoko dugu.

# 113) UrariTE

**Sinuose ez da Elgoibartik atera?**
Sorrerako bakiintzetako bat da Elgoibartik kanpo ez genuela ezer egingo. Ildo beretik Sinuose beti egon da herriko artista eta jendeari laguntzeko prest Adibidez, moda desfile bat girotzeko musika, argazki erakusketa bateko musika... horrelakoetara irekiak gaude.

**Jarraitzaile fidelak dituzuela uste dut**
Bai, oso gustura gaude. Aurten zer? galdetzen digute eta eskerizen da ikusmina. Gainera, kontzertu laburrak eskaintzen ditugu, 45 minutu asko jota, eta jendea parte hartzeko prest etortzen da. Urtetik urtera jendearen konplizitatea irabazi dugu. Gure helburua heniko ezagunak guregana hurbildu eta ohituta gaudenetik haratago musikarekin beste gauza batzuk egitea badagoela erakustea da. Proposamen arraroa izatetik bere izena eta lekua egin ditu Sinuosek 10 urteotan. Kuriositate pixkat daukanari erakargarri zaizkio gure proposamenak

> "Sinuose beti dadll herriko artistei laguntzeko prest"
>
> PATXI

**Zer eskainiko diezue aurten?**
10. urteurrena ospatzeko zerbait handia egitea pentsatzen aritu ginen, Herriko Antzokian egin genuen tankerako zerbait. Gure esentzia faltseatzea zela iruditu zitzaigun, ordea. Sotoan jarraituko dugu. 10 urte hauetan erabilitako kanta eta estiloen errepaso txiki bat izango da. Gure 'klasikoak" joko ditugu. Behin bakarrik jo ditugu batzuk jendaurrean, baina gure artean klasikotzat daukagu.





# TXOMIN OSORO
ZAPATARIA

## «10 ordutan bi zapata pare egitea lortu nuen»

*Modaren hatzapartetan harrapatunk bizi garen gizatte honetan jende guixik dauka zapata zaharrak konponizera eramateko ohitura, baina garai batean, zapata berriak erostea zen arraroena. Zapatak konpondu egiten ziren eta erabat aputtu arte ez zen berrinic erosten. Txomin Osoro zapanarekin hitz egin dugu gaurkoan eta berak kontatu dizkigu ofizio honen nondik norakoak.*

► **Noiz hasi zinen zapatari lanetan?**

15 urte nituela hasi nintzen. 9 anai-arreba ginen eta bakoitzak ofizio bat aukeratu zuen. Etxean esan zidaten ni zapataria izan behar nintzela, eta halaxe egin nuen. Soraluzera joaten nintzen zapatari ofizioa ikastera. Alberto Ortueta osinbwarra zen nire irakaslea, gizon ona benetan. Bi urte eta erdi eman nituen han. Azkar asko ikasi nuen zapatak egiten, urtebete pasa aurretik, nire kontura zapata pare bat eginda neukan ebcean.

► **Ofizioa ikasi eta gero?**

Soraluzetik Elgoibarrera etorri ginen. Alberto Ortuetak lokal bat hartu zuen San Bartolome kalean eta bertan hasi nintzen lanean. Bera nagusi eta ni laguntzaile moduan, gerra etorri zen arte. Hiru urte eta erdi pasatu nituen gerran eta handik bueltan, Ortuetarekin jarraitu nuen lanean, nire zopatadenda ireki arte.

• Noiz **ireki** zenuen zure zapatadenda**?**

Duela 63 urte. Hiru urte beranduago ezkondu egin nintzen eta emaztea ere nirekin hasi zen lanean. Nik zapatak egin eta berak beste lan txiki batzuk egiten zituen. Gaur egungo lokal berean ireki nuen ordukoa, baina oso desberdina zen. Gaur zapaten biltegia daukagun lekuan bizi ginen gu. Sukalde, komuna eta geure logela geneukan. Nire alaba ere hemenbce jaio zen.

00- **Eta, jubilatu arte zapatak egiten arifu al zinen?**

Bai. 65 urterekin jubilatu nintzen. Hasieran zapatak egiten nituen baina urdaileko gaixotasun bat izan nuenean zapatak egiteari laga eta konpondu bakarrtk egiten nituen. Lehen zapatak konpontzeko ohitura handia zegoen, gaur egun ez. Jendeak nahiago du konponkenta ordaindu baino, zapata berriak erostea.

> **«Za pata pare bakoitzarekin IO pezetatik behera irabazten nituen»**

**ol›Zenbat denbora behar zenuen zapata pare bat egiteko?**

Alberto Ortuetari trabesa egin nion, 10 ordutan bi zapata pare josiko nituela. Hark ezetz esaten zidan, baina lortu nuen, hori da nire markarik onena.

► Zenbat balio zuen garal hartan zapata pare batek?

Gizonezkoen zapata pareak 90 pezeta eta emakumezkoenak 60 edo 70 pezeta inguru. Ordurako garestia zen. Jendeak ez zeukon zapatak erosteko dirurik Abarketak merkeagoak ziren eta euria egiten ez zuenean, jende asko ibiltzen zen abarketekin. Zapata pare bakoitzarekin 10 pezeta baino gubdago irabazten nituen.

• **Zein da** zapatei brilloa emateko tru**koa?**

lustrea eman behar zaie lehenengo, gubd ematea komeni da. Lehortzen utzi eta gero trapu edo eskuarekin igurtzi brilloa atera arte. Horrek denbora handia eskatzen du eta jendeak zepiloa erabiltzen du. Eskuarekin askoz hobeto gelditzen dira.

• Zapatarien ofizio desagertu egingo **dela** uste al duzu?

Ez, gutxitu egin da, baina ez da desagertuko. Lehen Elgoibarren zapatari asko zegoen, egun bakarra, baina Eibarren mordoa dago eta asko gazteak Ofizioa aldatu egin da, orain zapatak saldu egiten dira batez ere, baina konponketa txikiak egiten dira oraindik Gure alabak dauka orain denda eta saltzeaz aparte egiten ditu beste lan batzuk Oso pozik nago guk hasitako negozioak alabarekin aurrera jarraitzen duelako.

PIANOA

# Musika Eskolako 17 ikaslek parte hartu zuten Andoaingo I. Piano Jaialadian

Pianoa instrumentu bakartia eta soinean eramateko ezinezkoa denez, ezker txarrekoa izan daiteke zenbaitetan. Hori dela-eta, pianoa ikasten jarraitzeko pizgarri izan dadin, I. Piano Jaialdia antolatu zuen Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak Andoaingo Udalaren laguntzarekin Andoaingo Bastero kulturgunean egin zen jaialdia joan zen orsailaren 11n. Euskal Herriko txoko guztietatik joandako 437 partehartzaile bildu ziren bi mailatan banatuta: 7tik 12 urtera bitartekoak eta 12tik 15 urte bitartekoak. Guztiei urrezko, zilarrezko edo brontzezko dominak banatu zitzaizkien. Elgoibarko Musika Eskolatik 17 musikari joan ziren. Hona hemen urrezko domina eskuratu zutenak Gorane Ayesta (bakarlaria), Alberto Hijano eta Miren Lahoz (4 eskutara), Vanesa Gomez eta Amaia Lersundi (4 eskutara). Zilarrezko dominak: Iker Alonso, Maider Alonso, Andrea Arrieta, Maialen Arberas, Garazi Kalzalorta, Natalia Solozabal, Laura Larrañaga eta Paula Alvarez (4 eskutara), Garazi Konde eta Ane Beiza (4 eskutara) eta Maria Ezpeleta eta Ane Astigarraga. Janire Rovira, Ane Urain eta Ane higuezek ezin izan zuten parte hariu gaixorik jarri zirelako.







## Otsail bukaerara arte mozorrotzeko lizentzia

Iaz baino beranduago iritsi dira aurten inauteriak. Atzo, Ostegun Gizeneko ospakizunekin hasi ziren ekintzak eta otsailaren 28ra bitartean luzatuko dira. Benetako egun potoloa baina, bihar izango da, zapatuan.

Uriero legez, Atxutxiamaika Aisaldi Taldeak Karaokea eta Mozorro Desfilearekin berotuko du giroa Plaza Handian (17:00). Mausitxa Txarangaren kalejirarik ere ez da faltako (19:00eian eta 22:45ean). Gauean, Joselu Anaien doinuek alaituko dute Plaza Handia eta gaberdian Gurutze Gorriak antolatzen cluen Mozorro Lehiaketa arrakastcrtsua hasiko da. Taldekako mozorrorik onenak 200 euro poltsikoratuko ditu, 150 euro bakarkako mozorrorik on nak eta 75 euro koreografiarik hober nak, besteak beste.

Martitzenean, otsailaren 28an, txi kienen txanda izango da. Mozorroen elkarizea 16:30ean egingo da Plaza Handian eta jarraian, dantzaldia eskainiko du Xurdin taldeak, eta ondoren, Disko festaren txanda izango da.

**PELLO PLAZA** WINGTSUN IRAKASLF

# «Wingtsunean norbera baino pertsona indartsuagoak garaitu daitezke»







*Arte rnarizialen maitemindu bat da Pello Plaza (36 urte). Bere bideak wingtsunarekin topo egin zuen 92an eta ordutik ez dira banandu. Orain, txinar jatorriko arte marizial honen irakaslea da Olaizaga ktroldeglan. Une honetan 40 Ikasle ditu bere aginduetara.*

► Noiztik wingtsuneko irakasle?

13-14 urterekin karatean hasi nintzen. Judoa, taekwondoa, haikidoa eta kickboxinga ere probatu nituen, baina 92an, une eta leku aproposean egotearen zorteari esker, wingtsuna ezagutzen lehenetarikoa izan nintzen Espainian. Sifu (maisu) Vitor Gutierrez, Espainiako maisu handienarekin hasi nintzen Bilbon, eta beragandik klase partikularrak jasotzon dituen bakarrenetakoa naiz. Kiroldegiko arduradunak ere eskertu nahi ditut wingtsuna Elgoibarren sartzen laguntzeagal Gipuzkoan, Donostian, Eibarren talde txiki bat eta Elgoibarkoa dira aukera bakarrak.

**10. Zure neuniko arte mariziala aurkitu zenuen.**

Bai. Arte martzial guztiek lagundu didaten arren, indarra eta bizkortasuna erabakigarriak dira: altuagoa edo indarrsuagaa bazara irabazteko aukera gehiago duzu. Wingtsunean pertsona txiki batek bera baino indartsuagoa garaitu dezake, ez baita azkartasuna edo indar fisikoan oinarritzen, borrokarako estrategiaan baizik. Pertsona txikia izanik, horrek erakarri ninduen.

• **Nork asmatu zuen wingtsuna?**

Legendak dioenez moja budista baiek (Ng Mui) asmatu zuen Txinan duela 250-300 urte. Arte marizial gazteenetakoa da, hortaz. Emakume hark Ving Tsun (udaberri eder txineraz) izeneko beste emakume bati irakatsi zion. Horiik dator izena. Kung Fu klasikoaren teknikekin gizon indartsuagoen aurrean ezer egin ezin zutelako garatu zituzten teknikok.

• **Zein teknika erabilizen dira?**

Teknikak baino, norbere burua defenclatzera bideratutako kontzeptuak dira. Oso zaila da eraso bat nolakoa izango den jakitea. Hortaz, irtenbide unibertsala da wingtsunaren lehen printziproa: egin aurrera, babestu eta erasocr jo. Parterik ahulenak: begiak, eztarria, bularra, urdaila eta genitaleak babesiu behar dira. Gorputzeko atal ia g uztiak era biltzen dira kontraerasora ko: ostikadak, ukondokadak, e.a. Kalean ez ciago erregelarik, defendatzen ez bazara txikitu egiten zaituzte. Amia erasoen aurrean (labana, makila, e.a) nola defendatu jakiteko hauekin nola erasotzen den ikasten dugu.

► **Zer onura ditu?**

Edozein kirolen onurez gain, malgutasuna, koordinazioa, mugikortasuna, e.a. pertsona hobea, umilagoa, izaten laguntzen du eta norbere buruarekin konfidantza edukitzen, beti garaile aterako zarenik ziurtatzen ez badizu ere.. Adibide bat jartzearren, ia zapatuero borrokan ibiltzen zen mutil bat daukat nirekin. Inor jotzeko ez niola ezer irakatsiko argi laga nion hasieratik. Klasera etortzen hasi zenetik askoz pertsona hobea dela aitortu dit, alegia, indarkeria baztertu eta bide baketsuagoen bitartez saiatzen dela istiluak konpontzen.

**«Kalean defendatzen ez bazara txikitu egiten zaituzte»**

RGAZI T.T.

# Aro berria aurpegi berriekin hasi nahi du Urgazi Triatloi Taldeak

Elgoibarko Urgazi Triatioi Taldeak aro berri bati, gogo berrituekin ekitea nahi dio. Duela 15 urte sortu zen taldeak kide kopuruari dagokionez ez ditu unerik gozoenak bizi. Hori dela-eta, igeria, txirrindularitza eta korrika moduko kiroletan aritzen den jendearen bilgune izan nahi du taldeak. Elgoibarko nahiz inguruetako krolzaleen bilgune, hain zuzen ere. Or-ain arteon bere kasara ibth den jendearentzako lotura izan nahi luke Urgazik, eta kirolzaletasuna bultzatu eta lagundu, oro har. Momentuz, triatloi eta duatloi probetan parte hartzeko federatuen lizentziak tramitatuko ditu klubak Interesatu guzitek martxoaren lean, asteazkenean, Olaizaga Kiroldegian egingo den bilerara



azaltzea besterik ez dute. Iluntzeko 20:30ean hastko da bilera. Argibide edo informazio gehiago nahi izanez gero: 615 750 337 telefonora dei egin daiteke (Amaia-gatik galdetu).

## riutikutzako parajeak eta sagardoa Morkaillig azi'' 1 1 1

51 lagunek ezagutu zituzten hariztiz eta pagacliz betetako Artikutzako basoak Morkaiko M.E.ak antolatutako azken iriee-ran. Hau, goiz partean izan zen, ordea, eguerdian, Hernani inguruko sagordotegi ezagun batera joan baitziren urteko gardoorekin zintzurra bustitzera. Mendi bueltak eragindako gosea bakailu tortila eta txuletekin ase ostean, giro onean pa-sa zutela eguna adierazi digute.



### Mendiko eski irteera

Morkaikoren hurrengo ideera ezhoi-koa izango da. Mendi taldeak zeharkal-diko eski irteera anfoiatu du estraineko al-diz. Marixoaren 3tik 5era bitartean leche-rines eta Pico des Moines mendietara igo-tzeko asmoa dute Aisatik abiatuta. Infor-mazio gehiagoroko jo Morkaikoren egol-tzara edo www.morkaiko.net helbid sartu.

## Anget M. Lopez Espainiako Kros Txapelketarako sailkatu da

Lasarten jokatu zen Euskadtko Kros Txapelketan lortutako laugarren postu bi-kainari esker, kadete mailako Espainiako Kros Txapelketan parte hartuko du Angel Mari Lopez antxintxikariak, lehen sei sail-kotuek lorizen baitzuten sailkapena. Gi-puzkoako txapeldun gisa parte ha zuen Mintxetako atleta elgoibartarr Borja Diez 17. postuan saiikatu zen inia m&lan.

## [ EMAITZAK ]

**FUTBOV**

Eibar 1 - Haundi 0 (3. maila)

Vasconia 2 - Elgoibar 4 (Erreg.)

Elgoibar 1 - lengobak 2 (Jub.)

Amtxaboleia 4 Elgoibar 0 (Kad.)

Elgoibar 3 Aloña Mendi 1 (Inf.

Elgoibar 3 - ilinixa 2 (Neskak)

Urki 3- Elgoibar 1 (Neskak F-8)

Elgoibar 2 - Añorga 1 (Aleb.)

**PILOTA**

Udaberri Txapelketa

Bergara 15 lagunnk (Atxo./Portu) 22 (1. jub.)

Urnieta 9 - logunak (Liz./Arlizab,) 22 (2. jub.)

Bear Zona 22 - logunak (AnibiSal.) 16 (2. kad.)

**ESKUBALOIA**

Tecnifuelle 22 Romo 23 (Senior mut.)

ANITSoftlan 19 - Umietako 24 (Senior. mut.)

IES Construccion 22 - tojantzi 23 (Senior. nesk.)

Arrasate 3 Comeiel 33 (Jub. nesk)

Pulpo 18 - Pagoogo 14 (Kad. nesk)

Usurbil 16 Umobitza 34 (Kad. mut.)

Legazpia 24 - Tecnomeca 23 (Kad. mut.)

Aiala Zorautz 6 - Olalso 11 (Inf. nesk)

Aterpe 26 - Zuozola Aloña 5 (Inf. nesk)

## [ AGENDA ]

**FUTBOLA,** Minixetan

Zapatua, 25

12:30 Elgoibar Urala (Neskak F-8)

14:00 Elgoibar - Urki (Neskak)

16:30 Haundi-A Ondarroa (3. matia)

**ESKU PILOTA** Ikostolon

Barixakua, 24

21:15 Lagunak - Hemani (2 kad.)

21:45 Lagu nak Bergara (2. iub.)

22:30 Logunak - Ololde (1. iub.)

## ENEBIZLTZA1ffiall.1~~1111111M

SALMENTA

Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, sukalde berritua, komuna eta egongela. Prezio interesgania. Garaje itxia aukeran.
686 22 44 38

> Arregitorren pisua salgai, garaje eta ganbarorekin. 93,49m2. Hall, egongela, bi komun, 3 logela eta sukaldea. Guztitz benitua.
tt: 943 **743915/678287847**

Etxea salgai Errosano kalean. Guztiz berritua. 168.200 euro (28 milioi pezeta).
V.2943748448/636571111

> Erdialdean dagoen pisua salgai. 3 logela, 2 komun oso, egongela-jangela handia, sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan.
656 72 44 01

> Pisua salgai Pedro Muguruza 31n. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trasteroa. Igogailu benia.
e 630 43 11 71

> Etxea salgai Santa Klara 26an. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. 610 68 41 64

ALOKAIRUA

►Estreinatu gabeko etxea alokatzen da San Roke kalean, 2 logela, berogailua, 2 komun, sukaldea. Altzariekin. 660 042 159

> Pisua osatzeko pertsona bat behar da. ts• 610 45 85 52

►Pisua hartuko genuke alokairuan. z• 943 53 17 33

> Pisua hartuko nuke alokairuan. Z. 626 91 49 04 (Rosa)

►Garaje itxia salgai Urasandin, Anayak poligonoan.
w 943 74 09 80/ 636 20 51 89

> Garaje marraduna alokatzen da Pedro Muguruza 11n. Merke.
5.1 943 53 16 48

> Sigmako poligonoan dagoen 600m'ko pabilioia salgai.
1 619409273/902103287

Leku Ederren garaje itxia salgai. 2. solairuan. 635 71 79 67

Garalea salgai San Roken (12-14, Kiroldegi pareon).
e 629 31 42 42

## f AUTOAK 1

> Citroen Xsara 2.0 HDt VTR coupe autoa salgai. 2000, urtekoa. 3 ate, ondo zaindua, IN pasatu berri. Extrak. 6.600 euro.
.0 659 554 564

> Robeti 214. 1400cc autoa salgai. 103 zaldi. Egoera aso onean.
21' 653 74 29 42

> York Shire arrazako txakurkurneak salgai. r.1 647 81 62 56

armairu handi salgai. Bi hilabete. Txuriak Haritz egurra.
're 645707700/943740226

> Urbiolak eginiko eskopeta salgai, Bi kanoi, eta 60zm-ko beste kanoi bat. Egoera onean.
5.` 685 75 70 52

►Lursaila salgai San lorentzon.
cs 625 708 042

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan ageriuko dira.
Eixeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 €. eta alokairua 8 € . Autoak 8 € . Eta bestelakoak 5 E . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

ESKAERA

- Neska gaztea lanerako prest: garbiketa, umeak edo nagusiak zaindu,.. rs 686 23 47 86
- Kamarero euskalduna barran lan egiteko prest.
620 04 94 20
- Emakumea gauez eta goizez nagusiak zaintzeko prest.
e' 943 17 28 96
- Neska etxeko lanak egiteko prest. '12 647 15 59 08
- Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest.
639 88 20 04
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. 943 74 22 01 (Araceli)
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. V686 578 228/943 53 12 75
- 37 uneko mutila enkofratzaile edo 2. mailako igeltsero moduan lan egiteko prest.
2. 638 361 395 (Josu)
- Mutila harategian lan egiteko prest, w 615 00 83 46

ESKAINTZA

- Ikastolen Eikarteak aisialdiko begirole eta zuzendariak behar ditu. 944354340 (Amaia)
- Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona bat behar da.
ta 943 74 02 41
- Asteburuetarako kamarero euskalduna behar da.
670 654 921
- Goratu CNC 8050 makinarako langilea behar da.
639 52 48 50
- Debagoienaroko txarkuteroa behar da. BaHintza onak
Cr 666 28 57 75
- Esperientziadun kamareroa behar da astean zehar arratsaldez eta asteburuetan lan egiteko. 1.1 679 75 88 66

**langai**
Euskal Lan Zerbitzua

- Arrasateko enpresok erizaina behar du. Erref. 162006002049
- Debako enpresak zenbakizko kontroldun makinen programatzailea behar du.
Erref. 162006001833
- Gipuzkoako enpresak idazkaria behar du.
Erref. 162006002311
- Mendaroko enpresak metrologoa behar du.
Erref. 162006000318
- Debako enpresak kalitate kontrolerako teknikaria behar du.
Erref. 162006000482
- Mendaroko enpresok tomurako langilea behar du.
Erref. 162006000321
- Bergorako enpresak biltegirako langilea behar du.
Erref, 162006002117
- Getariko enpresak sukaEdaria behar du. Erref 162006002196
- Azpeitiko enpresok etxez etxeko laguntzailea behar du.
Erref. 162006002195
- Arrasateko enpresak informatika teknikaria behar du.
Erref. 162006002042
- Arrasateko enpresak medikua behar du.
Erref. 162006002193

Hautagni moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langar-k Elgoiburren dituen zentruro deau: IMH (Nora Ramen) 943 74 41 32 telefonora.

## ABISUAK

- Urtarrilaren 10ean Madalako errotondan istripua izan nuen, eguerdian. Lekukoen bila nabil.
2' 680319002/943744062
- Karakatera bidean gizonezko baten hortzak aurkitu ditut.
943 74 27 27

## [ OKINDEGIA ]




## [ FARMAZIAK

**GUARDIA** 24 ORDUZ

24 Femandez
25 Yudego
26 Yudego
27 ZaboIeta
28 Etxeberria (Errosatioa)
1 Ibañez
2 Bidosolo
3 Ettebenia (Santa Ana)

• Beii *dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaklean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze,
Tel: 943 75 13 84




## I AUTOBUSAK ]

ELGOIBAR - DONOSTIA
Astegunak;
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20D0, 20:40
Larunbalok:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak ela iciegunok:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

**DONOSTIA- ELGOIBAR**
Astegurok:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta laiegunok
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
*PESA: 902 10 12 10*

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45,,.
ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuok eio jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA ELGOIBAR
Aslegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
AsIeburua eta jaiegunak
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK
EUSKOIREN: 943 74 04 42

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOLBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

18:30 GERNIKA-LUMOKO SEGUNDO OLAETA MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN KONTZERTUA
Herriko Antzokian
Antolatzaka: Inazio Bereziartua Musika Eskola
22:00 SINUOSE 10 **URTE**
Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea: Sinuose

## 25 ZAPATUA

10:00 ESKOLA KIROLA **ATLETISMO** JARDUNALDIA
Minixetako pista
17:00 KARAOKEA ETA MOZORRO DESFILEA
Plaza Handian
Antoiatzailea: Atxutxtarnaika Aisiafdi Taldea
19:00 **MAUSITXA TXARANGAREN KALEJIRA**
22:00 **JOSELU ANAIAK TALDEAREN DANTZALDIA**
Plaza Handian
22:45 **MAUSITXA TXARANGAREN KALEJIRA**



24:00 MOZORRO LEHIAKETA
Plaza Handian
Antolatzailea: Gazteen Gurutze Gorria
Izen-ematea: otsailak 25, goizez Gurutze Gorrian. Koreografia dutenek, izena ematerakoan CDa laga beharko dute.

18:00 GELATX0 ORKESTRAREN DANTZALDIA
Jubilatuen Biltokian
Mozorro Lehiaketa ere izongo da. Mozorrorik onenentzat bi sari banatuko dira
19:00 MAUSITXA IXARANGAREN KALEJIRA

## 126 DOMEKIA ]

18:00 GELATX0 ORKESTRAREKIN DANTZALDIA
JubiLaluen Biltokian

## ] 28 MARTITZENAL

15:15 IKASTOLAKO HAURREN EUSKAL INAUTERIA
Kalejira eta dantza saioa
Plaza Handian (eguroldi txarra eginez gero, Ikastolako frontoictn)
16:30 MOZORROEN ELKARTZEA
Plaza Handian
Jarraian, XURDIN taldearekin dantzaldia
Ondoren, DISKO FESTA

## 1 EGUAZTENA

15:30 BULARREKO MINBIZIA GO[Z DETEKTATZEKO KANPAINA
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
50 eta 64 urte bitarteko ernakumeei zuzendura dago
Antolatzailea: Katxalin, bularreko eta umetokiko minbiziak eragindako ernakume glpuzkoarren elkanea
20:30 URGAZI T.T-REN BILERA
Olaizaga Kiroldegian

## E 3 BARIXAKUAl

19:30 INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO TALDE INSTRUMENTALEN KONTZERTUA
Musika Eskolako auditorioan

# ZINEild
## KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN
«Match Point»
24, barixakua: 22:15
25, zapatua: 19:30-22:15
26, domekia: 19:30-22:15
27, astelehena: 21:30
«Doce fuera de casa»
26, domekia: 16:30
«Nadie sabe» (Z.K.)
2, eguena: 21:30
«Manuale d'amore»
3, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA
«La Pantera Rosa»
24, barixakua: 19:30-22:15
25, zapatua: 17:00-19:30-22:15
26, domekia: 17:00-19:30-22:15
27, astelehena: 19:30-22:15
28, martitzena: 19:30-22:15
1, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO
«En la cuerda floja»
24, barixakua: 19:30-22:15
25, zapatua: 17:00-19:30-22:15
26, domekia: 17:00-19:30-22:15
2Z astelehena: 19:30-22:15
28, martitzena: 19:30-22:15
1, eguaztena: 19:30-22:15

rr BARRENek ez du gerta lilezkeen emanoldFen aidaketen erantzukizunik, 

## «Nadie sabe» (Zine Klubcr

Zuzendaria: Woody Alien
Antzezleak: Jonathan Rhys Meyers, Scarlett Johansson.
Horrenbeste miresten duen New York hintik aldendu eta Londonen filmatu du Woody Allenek bere azken istorioa. Bertan, maila altuko ingeles gizorteon sortu du bere komara. Filmako protagonistak bi emakumeren artean aukeratu benarko du, baina bere gehiegizko anbizioak ez dio gauza honik ekarriko. Scarlett Johansson aktoreak senar-emazte ingelesaren tartean surtzen den neskatxo iparamerikar ecierraren papera antzezten du.



Zuzendaria: Hirokazu Kore.
Antzezleak: Yuya Yagira, Ayu Kitaura, Hiei Kimura .
lou ume bere ama/ekin bizi dira Tokion duten pisubcoan. Guztiek aito ezberdina dute eta inoiz ez dira eskolara joan. Egun batetik bestera ama desagertu egingo da. Diru apur bat eta seme nagusjenari txikienak zclintzeko dioen papertxo idatzia bakarrik lagako ditu, Lou urneentzat bizimodu berri bat hasiko da. Beraiek sortutako erregelak baliozkoak clira euren artean, baina ez kanpoko munduari aurre egin behar diotenean.



. urteko erretratu zahar hau Enrike Egurenek laga digu. Herriko Estudiantina taldea ageri da argazki honetan. Gose garaia zen, eta talde honek herriko behartsuen aldeko diru bilketa egiten zuen ihauterietan. Arrakasta handia izaten zuen eta behartsuek izugarri eskertzen zuten jasotako dirua. Gaur egun Gabi taberna denaren aurrean aterata dago argazkia. Erretratuan ageri diren umeen izenak jakitzerik ez dugu izan, baina ziur norbaitek bere burua ezagutuko duela.

Goia n, ezkerretik eskuma rct: Jesus Oria (t) (itzia rtarra), Juanito Aizpitarte (t) (Erreketct), Arturo Zubiaurre, Pedro Beristain (t), Jose Gabilondo (t), Elias Mardaras (t), Santi Saez (t), Jose Mari Mugerza (t), ezezaguna, Jose Zabala, ezezaguna, ezezaguna. Bigarren ilaran, zutik: Ifiaki Konde (t), Iftaxio Badiola (t) (Moka), ezezaguna, Lucio Ostolaza (t), Sabin Beristain, Luis Mg Zubiaurre, Zirtako Altuno (t) (Kele), Miguel Sanchez (t), Jose Iriondo (t) (Sanson), Rafael Mugerza (t), Gerardo Etxeberria (t), Luis Arriola (t). Hirugarren ilaran, makurtuta: Pakito Muñoz (t), Jose Elkoro (t), Moises Agirre, ezezaguna, Jose Mg Igartua (t), ezezaguna, Kanuto Gabilondo (t), ezezaguna. Beheko ilaran: German Uriguen (t) (Etxegiña), Pedro Ortiz de Villalba, Santiago Kortaberria (t), Asensio Olalde (t), Ildefonso Ansola (t), Jesus Goiartzun (t), Jesus Gabilondo(t) eta azken hirurak ezezagunak.




Alineoziaa ez dago prezioren bame

ESKAINTZA

*ESKULANA eta BEZ-a prezioan barne.

| REF. | DESKRIBAPENA | PREZIOAX | REF. | DESKRIBAPENA | PREZIOA/€ |
|---|---|---|---|---|---|
| 958337 | 175-65-14E3A (T) | 71,46 | **818521** | **195-60-15E3A (H)** | **100,04** |
| 860809 | 165-65-14E3A (T) | 62,88 | 868762 | 195-65-15E3A (V) | 102,42 |
| 881923 | 175-70-13E3B (T) | 60,03 | 137266 | 205-50-16 {V) PRIMACY | 151,95 |
| 502818 | 165-70-13E3B (T) | 58,12 | 688397 | 185-65-15E3A (H) | 102,42 |
| 72716 | 185-65-15E3A (T) | 80,98 | 458398 | 205-55-16E3A (V) | 134,33 |
| 766215 | 175-70-14E3A (T) | 72,41 | 137268 | 205-55-16E3A (V) PRIMACY | 134,33 |
| 136227 | 195-65-15E3A (H) | 96,23 | 136276 | 215-50-17 (W) PRIMACY | 221,02 |

Giauto ELGO1BAR • BERGARA ARRASATE • EIBAR • ANOETA • OLABERRIA

www.giauto.es
clientes@gfauto.es
902345 125

# Elgoibarko Izarrak eta Udalak martxan jarri nahi duten KUADRILLATEGI proiektua an egiteko

# 2 DINAMIZATZAILE behar dira

**Proiektuaren helburua: 12-14 urteko Elgoibarko gazte-kuadriletan euskara bultzatzea.**

**Dinamizatzaileen dedikazioa: Astean 5 ordukoa.**

Eskatzen da:

- 18 urte beteta izatea
- Elgoibartarra izatea

Hezkuntza adarretako ikaslea izatea baloratuko da.

informazio gehiago eta curriculumak bidaltzeko:
Elgoibarko Izarra, Ubitarte 4 behea. Tel.: 943-74 16 26 (Nereal *nerea.larracj'elgoibarkoizarra.com*
ken eguna: martxoak 1

fs,
ELGOIBARKO

Elgoibarko
Udala


## Chevrolet harrigarriagoa da.

Ez baduzu sinesten 0-km.koa dela, begiratu prezioa.




Lacetti 1.4 SE. 0 Km - 11.700 €
Nubira 1.6 SE. 0 Km - 11.700 €

Orain 2005ean matrikulatutako Lacetti edo Nubira bat (0 km) prezio onenean eduki dezakezu. Berri baten zerbitzu eta ekipamenduarekin. Estreinatzen duzula esan dezakezu, guk gordeko dizugu sekretua.

***Giauto*** *902 345 225*
Otaola Etorbidea, 27 EIBAR Tel.: 943 70 08 41
Karobt Industrialdea zig OLABERRIA Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

C.HEVIZEILEr

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da.

Kontsuma midna 0/100). 03, ernisioa (11/1.). Nubm 7 1.13 13/178-21C Laceth 71.8 8/171-210.

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
w 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
w 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
vu 943 74 32 38

**Imar**
Erreformak
w 943 53 14 71
t2 646 90 55 64
w 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
.w 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
w 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
943 74 05 47

ri r,
LJ

## Proiektu eta erreformak

**Estudlos Arrlllaga**
Errosario, 15 behea (Elgolbar)
fr. 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
w 943 200 698

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
tik 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
w 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
w 943 75 60 44
e 659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
w 943 75 50 62
gu. 607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
ce 943 74 05 30

**Zubizarreta lnstalazloak**
Ubitarte, 5 behea
w 943 74 07 89
si 650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonlo Markez**
Urasandi, 24
iu 943 74 34 18

**E. Arandla**
Urasandi, 22 behea
tz 605 70 52 04

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
943 74 12 80

**Azpeleta.**
San Frantzisko, 51
• 943 74 12 38

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
1.1 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
13 943 74 15 52
e 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
w 943 74 04 40/607 74 04 40

## Isolamenduak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberrl lndusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
w 943 74 20 98/629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com